

«La rentrée»

Joxean Agirre

Bizitzan hartu ditudan erabaki garrantzitsu bakanak ikasturte hasieran, irail-urrian, hartu izan ditut. Aurten eBook on bat erostera noa. Norbaiti huskeria irudituko zaio, baina badu mamia. Lakuak martxan jarri duen eLiburutegian 12.000 izenburu daude. Bestalde, Amazonetik erosten ditudan paperezko liburuen ordezt *kindle*ak erosiko banitu (ez dakit bateragarriak diren, hori da bestea), hilean pare bat afari egiteko dirua aurreratuko nuke. Gainera, etxeko egongelan horma osoa hartzen duen liburutegia garbitzen has naiteke eta nire aspaldiko amets bat gauzatu: oso kutunak ditudan hamabost bat idazle utzi, hogei gehienez, txukun-txukun, oraingo anabasaren ordezt, eta gauero ohera joan aurretik mirespen begiratu bat botako nieke eta, inor zelatan ez badut, laztan furtiboren bat eman diezaioket libururen bati.

Hori gutxi ez dela, liburu-dendetara egiten ditudan bisitak saihestuko nituzke, joaten naizen bakoitzean han apaletan mukururu dauden liburuei begira izerdi larria ateratzen baitzait eta neure buruari galde-

tzen baitiot «zertan ari haiz egunero orduak idazten ematen, zer behar zagok?». Gabriel Zaidek “Los demasiados libros”-en dio horrelako liburu-denda batean 30.000 liburu egon daitezkeela eta hori ez dela salgai dagoenaren %1 baizik. Itsaso horretan euskal liburuak galduta daude. Behin Bolañori elkarrizketa batean Latino-amerikako literaturaren geroaz galdetu zioten eta zubi batetik begira jarri eta hogeita hamar buru ikusten zituela igerian erantzun zuen, baina horietatik bizpahiru izan ezik beste guztiak itoko zirela. Euskal idazle arrunt batek badaki itsaso horretan ez duela salbatzeko aukerarik. Beraz, aurrerantzean ez dut liburu-denda batera sartu eta itomen edo txikitasun sentipen hori pairatu beharrik izango.

Bits asko dago liburuen inguruan, baina diru gutxi. Negozio editoriala gainbehera doa. Abuztutik urrira 600 nobela berri aterara dira frantsesez; asko, baina iaz baino %3 gutxiago. Gurean uzta ona dela diote, baina marketina falta zaigu. Parisen azken bi asteotan aukeratu dituzte Goncourt, Renaudot, Femina eta Medicis sarietarako

zerrendak eta azaroaren erdira arte ibiliko dira, gurean Bertsolari Txapelketarekin bezala, final-laurdenak eta finalerdiak egiten, gurean sarietako finalistak ere ezkutan gordetzen ditugun bitartean. Sarien kontra zerbait larria dugu nonbait. Eskerak gure poetak gutxienez onak diren performanceak, irakurketak, errezitaldi eta ekitaldi musikatuak antolatzen.

Salmentak ere behera doaz eta ez da harritzekoa idazle batzuk bide berrien bila hastea. Orain dela gutxi Stephen Zagdanski idazle frantsesak bere erabakiaren berri eman du: aurrerantzean eleberri bakunak, ale bakarrekoak, egingo ditu erakusketa aretoetan jartzeko. Ari da lehena idazten emakume biluzien gainean. Joño!, esan eta Internetera jo nuen irudirik ba ote zuen begiratzera eta emakume baten argazkiak aurkitu nituen, beti emakume bera, gainean esaldiak zituela. Gajoa!, pentsatu nuen, bere emaztea izan zitekeela susmatuz, ederra dauka gizon honekin. Burutik pasatu zait horrelako zerbait egin ote nezakeen, baina non aurkitu behar dut nik eroapen hori duen emakume bat nire inguruan. •

«Amapola morea»

Mirari Martiarena

Itzuliko ginela hitzeman genuen. Kurtsio berrian izango zutela gure entzuleek “Amapola Morea” irratsaioaz gozatzaren jarraitzeko aukera. Antxeta eta Oiartzun irratieta izango ginela ostegun iluntzeetan hamabostero. Baina, hitza jan beharrean gara Aitziber Zapirainek eta biok aurtengo ikasturtean ez baitugu saiorik egingo. Eta ez, ez da «amapola moreen» falta dugulako.

Aurtengoa arnasaldia da, bi ikasturtetan oso gustura aritu gara elkarrizketak eginez (lagun batek esaten duen moduan, sorginen laratzak). Baina, azkenerako, laratzaren bueltan egoteko denbora gutxi genuen. Lana, bilerak eta gainontzeko guztia ezin uztartu. Agenda sinkronizatu nahiak ematen

zizkigun buruhausterik handienak. 38 gonbidatu izan dira gure galderak erantzuten. 38 emakume, 38 sorgin, 38 amapola more. Guztiengandik ikasi dugu zerbait, guztiek landatu dute euren hazitxo guban eta guztiak, den-denak asko maite ditugu. Barre egin dugu, hunkitu egin gara eta ingelesezko abestien izenburuetan argi geratu da dezente hobetu behar dudala ahoskera.

Bi irratiaren arteko elkarlana baino gehiago da “Amapola Morea”. Emakumeek komunikabideetan duten lekuaren gaineko hausnarketatik abiatu ginen Aitziber eta biok. Galderak egiteko estilo desberdinak ditugu, batek luzean, besteak motzean. Elkarren osagarriak. Bizitzan bezala. Ordubeteko hamabostero elkarrikizketetatik ha-

rago doa gure harremana. Saioak berak eman dizkigu infusio tertuliak, mendi bueltak, konplizitatez beteriko momentuak eta horri ezin zaio lana deitu. Horri plazera deitzen zaio. “Amapola Morea” egin ez arren, badakit Aitziber hor egongo dela eta berak ere badaki ni non nagoen. Bi ikasturteotan izan ditugun gorabeherak handiegiak izan dira guztia hemen bukatzeko.

Ez dakit “Amapola Morea” itzuliko den, eta itzultzen bada ere, noiz eta nola esaten ez nuke jakingo. Askok ikasi eta gozatu dut elkarrizketak prestatzen eta egiten. Esker hitzak besterik ez ditut. Eskerrik asko amapola more guztiei, eskerrik asko Aitziber eta, nola ez, eskerrik asko zuri entzule. •